

DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN 2022 ETA 2023KO LAN-ESKAINZA PUBLIKOAREN MODALITATE EZBERDINEI DAGOZKIEN HAUTAKETA-PROZESUAK

2022ko abenduaren 30ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Erakundearen 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritako hautaketa-prozesuen deialdia.

2023ko ekainaren 7an argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Erakundearen 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza zabaltzearen ondoriozko hautaketa-prozesuen deialdiak.

2023ko ekainaren 7an argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Erakundearen 2023ko Lan Eskaintza Publikoaren ondoriozko hautaketa-prozesuen deialdia.

Aipatutako deialdiei buruzko informazio guztia udalaren webgunean argitaratu da.

Hauetara deitutako prozesuak:

Hautaketa Prozesua	Lanpostua	Hautaketa-sistema	Sarbidemodalitatea	Plazakopurua	Euskara	Lan eskaintza publikoa
1	Errehabilitazio Saileko Arduraduna	Oposizio-Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	Tasa Espezifikoa 2022
2	Eraikuntzako teknikaria	Oposizio-Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	Egonkortzeko berezia 2022
				1	C1 nahitaezkoa	Tasa Espezifikoa 2022
3	Administraria	Oposizio-Lehiaketa	Orokorra	2	B2 nahitaezkoa	Egonkortzeko berezia 2022
				1	B2 nahitaezkoa	Tasa Arrunta 2023
4	Sail Teknikoko arduraduna	Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	Egonkortzeko salbuespeneko a 2022
5	Eraikuntzako teknikaria	Lehiaketa	Orokorra	1	Merezimendua	Egonkortzeko salbuespeneko a 2022
6	Etxebizitzen eta errentamenduen ikuskatzailea	Lehiaketa	Orokorra	1	Merezimendua	Egonkortzeko salbuespeneko a 2022
7	Administraria	Lehiaketa	Orokorra	5	3 plaza B2 nahitaezkoa eta 2 plaza merezimendua	Egonkortzeko salbuespeneko a 2022
8	Kudeaketa teknikaria	Oposizio-Lehiaketa	Orokorra	2	C1 nahitaezkoa	Barne promozioa 2022

Aurrekoa ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluak emandako ahalmenez baliatuz, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

1.- Lehen aipatutako hautaketa-prozesuetarako Hautaketa Batzordeko kide hauek izendatzea:

- Rafael Bernardo Farias Blanc, Donostiako Etxegintzako Zuzendari-Gerentea, Lehendakaria izango da
- Juan Carlos Cuevas Argandoña, Jarduera integratuen unitatearen burua, kidea izango da.
- Maria Isabel Iñiguez Azurmendi, Pertsonak kudeatzeko zuzendaria, kidea izango da.

2- Honako hau www.donostia.eus webgunean argitaratzea, Erakundearen lan-eskaintzaren atalean.

Donostia/San Sebastián, 2023ko uztaliaren 10a / 10 de julio de 2023

DONOSTIAKO ETXEGINTZAREN ZUZENDARI-GERENTEA

Rafael Bernardo Farias Blanc